

9. Jesus'en Lagundi'ko aita Joakin Azpiazu jauna Euskaltzaindia'k *Euskera*'ren zuzendari izendatu du; aita Lande'ren ordez.

10. Maipuruak bere lan edeña *Afijos Vascos* irakuri du.

Ta besterik ez da, oiturazko otoitzaz, amai eman zayo batzaraldi oni.

Donosti'n, Aldundi - Jauregi'an, 1921'ko Lotazila'ren 29'an.

Batzaraldia, oizko otoitzaz asi-ta, egin dute lefoz datozen euskaltzain jaun abek: Azkue, maipuru, Eleizalde - Kanpion - Urkijo - Lakonbe - Lande'etxe - Intza Olabide - Eguskitza - Altube ta Intzagarai, urgazlerik batez.

1. Olabide jaunak *Giputx-aditza*'ren lan edeña irakuri du. Maipuru jaunak oar batzuek egin dizkiyo, ta lan orixe, ondo aztertu ondoren, *Euskera*'n argitaratzea, erabaki da.

2. Bartzelona'ko Grieria jaunaren eskutitz batek diyo: Aita Polikarpo gure bekadunaren aldez Jud ta Gocha irakasle ospetsuei idatzi diyela. Aita Polikarpo'ri esan bea' zayo: Zurich-ko ikastaroa oraindik asten ez dalako, inguruko *konbentu* batean bitarte egin dezakela.

3. Grieria jauna beronek, gure *Euskera* ta *Bulle-*

ti de Filologie-árteko trukea eskatzen du. Bayezkoa pozaz dasa Euskaltzaindia'k.

4. *Eusko - Ikaskuntza*'k Gernika'ko *Congreso Vasco* atontzeko Euskaltzaindia'ren urgazpidea nai du. Euskaltzaindia'k *Congreso*'rako dagokiyon lana poz-pozaz ártzen du, ta Eleizalde jaunari egosten diyo, bigar' beítan azaltzeko, zer' egin ditekeneen zia-boíotxo bat.

5. Euskaltzaindia'k euskal - ikastetxeak ez ditu zurítz utzi bear. Bizkaiko Aldundiaren erabaki bat ikastetxe oyen kaltez azaldu da oraintxo. Euskaltzaindia'k eri oyetako apaiz jaunai idaztea erabaki du, áren, eskaturik, edo berak batu-ta edo bakoitzez Aldundia'ri bide dan gauza agertu dezayotela: alegiya, umeak *doctrina donea* bederik euskeraz ikasi dezatela. Eri-auzo oyen izenak ara ementxe: Mendeta'ko Albiz - Arátzu'ko Belendiz - Gamiz'ko Aríeta - Eri-goitia Olea-Mexika - Bengoetxe - Arkotxa - Uribe - Urizubi - Aspiltsa - Derio - Laukariz - Yuréta - Orobio - Zenaíruza - Gerika - Muxika - Astelara - Arkats - Oba.

6. Euskaltzain Lhande jaunaren alde Urkijo jaunak egin dituen jarđunak, onek azaldu ditu. Oraindik órdea dasa; Luis Miranda jaunarekin egongo dala; bañan jaun onek, ezin ezer' dezakela esatekotan, len *Ministro de la Gobernación* izandako Goikoetxea jaunarengana joko duela.

7. Euskaltzaindia'k geyegi deritza Barañeño ta Oyarzábal jaunai ematen zayen saria, abek egin dituzten orainárteko lanak aúrez-aúrez ikusi-ta. Barañeño jaunak bere lantxoak oíaldetu-ta dakaítki. Ondo. Euskaltzaindiak egoki deritza. Beste ainbet egin bear du Oyarzábal jaunak: bere idaztiñoak oíaldetu.

Euskaltzaindia'k onetzaz auxe erababi du: Lantxo oyek orialdetuta betoz, liburutiño baten antzera, ta orialde bete bategatik, auferantzean egileai 25 peseta emango zaye. Lan oyek ordea, berak jayo edo bizi diran erietatik egin dezazkiteke, Bilboratu beartu gabe.

Ta beste gai batzuek urango batzaraldirako lagata, oiturazko otoitzaz amai eman zayo batzaraldi oni.

Donosti'n, Aldundi - Jauregian, 1921'ko Lotazila'ren 30'an.

Aureko batzaragirian aipatu diran euskaltzain jaun berak, bildu ziran; urgazlerik batez.

1. Eleizalde jaunak, atzoko batzaraldian, Gerñika'ko *Congreso Vasco* dala bide, egotsi zitzayon txostentxo, irakuri du. Bere aburuz, auxe izan diteke Euskaltzaindia'ren egikizuna: *Conferencias generales*.—Dos extranjeros y Menéndez Pidal.—*Lecciones: a) Fonética experimental* (Navarro Tomas), *b) fonética gramatical* (Gavel), *c) dialectología*, *d) el verbo*, *e) literaturas clásica y moderna*.—Secciones: *Enseñanza del euskera*.—*Enseñanza en euskera (grados, procedimientos, textos)*.—*Fomento del euskera en las clases cultas*.—*El gran diccionario euskérico*.—*El euskera y la Iglesia*.—*El euskera y el Estado*.—*Toponomástica vasca*.

Euskaltzaindia'k bere egikizunen eredutzat txostentxo auxe artu du.